

TELEKOMUNIKAZIO-ZERBITZUETAKO BEZEROENTZAKO PRIBATUTASUN-POLITIKA

Euskaltelen zerbitzuak emateko, pertsona fisikoa den bezeroaren datu pertsonalak edo pertsona fisikoa den bezeroaren edo bezero juridikoaren ordezkarien (aurrerantzean, ordezkaria) datu pertsonalak tratatzen dira, pribatutasun-politika honetan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Euskaltel kide duen MasOrange taldearen Administrazio Kontseiluak onartutako pribatutasunaren eta datu-babesaren printzipioetan oinarrituta dago politika hau, eta www.masorange.es webguneko "Arau eta politika korporatiboak" atalean kontsultatu daiteke.

- ➡ **Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?**
- ➡ **Zer motatako datuak trata ditzakegu?**
- ➡ **Zer helbururekin tratatzen ditugu zure datuak, eta zer legitimazioarekin?**
 - ➡ **Zerbitzu-ematearekin erlazionatutako tratamenduak**
 - ➡ **Iruzurraren prebentzioarekin erlazionatutako tratamenduak**
 - ➡ **Ondare-kaudimena**
 - ➡ **Zerbitzuak aztertzea eta hobetzea**
 - ➡ **Informazio komertziala**
- ➡ **Nori jakinarazten dizkiogu zure datuak?**
- ➡ **Euskaltelen zerbitzu-hornitzaileak**
- ➡ **Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak?**
- ➡ **14 urtetik beherako datuen tratamendua**
- ➡ **Adimen artifizialeko sistemak erabiltzea**
- ➡ **Beharrezko informazio eguneratua**
- ➡ **Zein dira zure eskubideak?**
- ➡ **Jokabide-kodeak**

➡ Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Sozietate hauek dira tratamenduaren arduradun:

- Euskaltel SA. IFZa: A-48766695. Helbidea: Parke Teknologikoa, 809 eraikina, 48160 Derio.
- R Cable y Telecable Telecomunicaciones SAU. IFKa: A-15474281. Helbidea: C/Real 85, 15003 Coruña.

Bi sozietateek datuak babesteko ordezkari bera dute; harekin harremanetan jartzeko, bidali mezu elektronikoa bat dpd@euskaltel.com helbidera.

Zer esan nahi du arduradun izateak?

Horrek esan nahi du bi sozietateek elkarrekin zehaztu dutela beren bezeroei lotutako datu pertsonalen tratamendu bakoitzaren helburua, bai eta tratamendu horietan, informazio-sistemetan eta beste batzuetan erabili beharreko baliabideak ere.

Berdin dio zein sozietateri zuzentzen zatzaizkion datuak babesteko eskubideren bat eskatuz; berdin-berdin jasoko duzu erantzuna. Hori bai, azkarrago egiteko, zein komeni da esatea Euskaltelen bezeroa zarela.

Bien ardura arautzeko, bi sozietateok berariazko kontratu bat sinatu dugu, non agertzen baitira bakoitzaren eginkizunak eta erantzukizunak. Kontratu-harremana duzun sozietatearen erantzukizuna izango da:

- Zure datuen tratamenduari buruzko informazio guztia ematea.
- Tratamenduaren zilegitasunaren frogak lortzea, adostasunak barne direla.
- Eskatzen dizkiguzun eskubideak izapidetzea eta haiei erantzutea: datuetara irispidea izateko eskubidea, haien tratamenduari aurka egiteko eskubidea, ezabatzeko eskubidea, eramateko eskubidea eta abar.
- Zuri eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziari jakinaraztea zure datuen babesaren urratzen bada eta horrek zuretzat arriskuren bat sor badezake.

Aitzitik, bi sozietateen erantzukizuna izango da:

- Datuen tratamendua zehaztea eta zuri tratamendu horri buruzko zer informazio eman behar dizugun erabakitzea.
- Datu-babesarekin lotutako arriskuak aztertzea, datu-babesaren eraginaren ebaluazioa egitea eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziari beharrezkoak diren kontsultak egitea.
- Zure datuak seguru edukitzea, arrisku-azterketaren arabera beharrezkoak diren segurtasun-neurriak definituta, ezarrita, haiei jarraipena eginda eta egokituta.
- Gerta daitezkeen segurtasun-gorabeherak behar bezala kudeatzea, haien eragina murrizteko.

◀ Itzuli

➡ Zer motatako datuak trata ditzakegu?

Datu pertsonal batzuk edo besteak tratatuko dira, Bezeroak zer zerbitzu kontratatzen dituen edo une bakoitzean tratamenduak zer helburu duen kontuan hartuta. Hona hemen Euskaltelek bere Bezeroei buruz trata ditzakeen datu-moten zerrenda:

a) Bezeroarengandik zuzenean bildutako informazioa: Bezeroak emandako datuak dira; esaterako, nortasun-agiriaren zenbakia, posta-helbidea, zerbitzuaren instalazio-

helbidea, telefono finkoko eta mugikorreko zenbakiak, helbide elektronikoa, jaiotze-data, bankuko xehetasunak edo ordainketetarako xehetasunak (fakturak ordaintzeko), operadore emaileari buruzko informazioa (lineen eramangarritasuneko kasuetan), eta bezeroarentzako arreta-kanalen bitartez (bezeroarentzako arretazerbitzura egindako deien grabaketak barne), Euskaltelen sare sozialen bitartez eta datuak zuzenean lortzeko beste inprimaki batzuen bitartez emandako beste edozein informazio.

b) Zerbitzuak ematearen ondoriozko datuak: Alderdi hauekin erlazionatutako datuak sartzen dira: kontratatutako zerbitzuak, hileko kontsumoa (adibidez, dei-kopurua, haien iraupena, egindako dei-mota, nazionalak, nazioartekoak edo roamingekoak), bidalitako SMS kopurua, erabilitako datuen bolumena, eta bestelako fakturazio-informazioa. Bezeroak kontratatutako beste zerbitzu batzuek sortutako informazioa ere sartzen da; esaterako, telebista-zerbitzua (bezeroaren etxean ikusten diren edukiak barne), eta Internet zerbitzua (hala nola Bezeroaren etxean instalatutako bideratzailera konektatutako gailuen mota eta identifikazioa —IMSI—), baldin eta Internet kontratatua badu etxean.

b.1) Trafikoari buruzko datuak: komunikazio elektronikoak bidaltzean sortutako informazioa da, haien edukia gorabehera. Alderdi hauei buruzko informazioa biltzen dute: komunikazioen jatorria eta helmuga (telefono-zenbakiak, IP helbideak, erabiltzaile-identifikatzaileak), deien data, ordua eta iraupena, komunikazio-mota (ahotsa, testu-mezua), bidalitako datuen bolumena eta ahots bidezko zerbitzuen trafikoa (esaterako, VoIP deiak).

b.2) Kokapenari buruzko datuak: Bezeroaren mugikorra zer antenatara lotuta dagoen ikusita, haren kokapen geografikoa identifikatu dezakegu. Identifikatzaile honekin, gutxi gorabeherako kokapen geografikoa lortu daiteke, antenaren kokapenari buruzko informazioa eduki ezean.

b.3) Web-nabigazioko datuak: Sarean sartzearekin erlazionatutako datu teknikoak eta nabigaziokoak dira, hala nola erabilitako IP helbide publikoa, konexioaren data eta ordua, DNSari egindako kontsultak, bisitatutako web-orriak edo erabilitako aplikazioak, kontsultatutako webguneen IPa, domeinuaren izena (URLa) eta webgunearen barruan bisitatutako atalak.

b.4) Ondorioztatutako datuak: Bezeroaren informazioa aztertu ondoren lortzen diren datuak dira. Informazio horretatik, hauekin erlazionatutako zenbatespenak egiten dira: hobespenak, etxearen ezaugarriak, abandonurako joeraren ereduak eta beste estatistika-eredu batzuk (zein den Bezeroarekin harremanetan jartzeko ordutegirik onena, edo zer portaera duen ordaintzean).

c) Kanpo-iturrietatik lortutako datuak: zure eskaeren eta eragiketen bideragarritasun ekonomikoa aztertzeko informazioa (hauetatik lortua: kreditu-informazioko sistemak, hala nola Asnef-Equifax Servicios de Información sobre Solvencia y Crédito SL eta Experian Bureau de Crédito SA, eta kreditu-balorazioko enpresak, hala nola Equifax Ibérica SL); iruzurra prebenitzeko informazio-sistemetatik datorren informazioa (adibidez, HUNTER sistema, Iruzuraren Aurkako Enpresen Espainiako Elkartea). Datuak helburu komertzialetarako tratatu baino lehen, Publizitaterik jaso nahi ez dutenen fitxategi komunak kontsultatuko ditugu, haietan ez zaudela egiaztatzeko, kontsulta hori legez aurreikusita dagoenetan ("Robinson zerrendak" ere esaten zaie fitxategi horiei, eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak

argitaratutako zerrendan daude). Horretaz gain, betiere berariazko adostasuna eman baldin badiguzu, beste informazio-iturri batzuk, zure profil komertziala aberasteko.

◀ Itzuli

➡ Zer helbururekin tratatzen ditugu zure datuak, eta zer legitimazioekin?

Gure bezeroekiko kontratu-harremanaren testuinguruan jasotzen ditugun datuak helburu hauetarako tratatuko ditugu:



Zerbitzu-ematearekin erlazionatutako tratamenduak

Helburua	Legitimazio-oinarria	Datu tratatuak	Tratamenduen epea
Bezeroaren kontratazio-eskaeren kudeaketa. Zerbitzuak hornitzeko, aktibatze eta emateko eskaerak kudeatzea, fakturazioa eta kobrantza, aurrez ordaintzeko saldoetako deskontua, zerbitzua ematearen ondoriozko zalantza, gorabehera edo erreklamazioei erantzutea. Bezeroaren ordezkariarekiko harremanari eustea aurreko helburuetarako. Bezeroen eremu pribaturako sarbidearen kudeaketa (webgunea eta/edo aplikazioa)	Kontratu bat gauzatzea edo kontratu aurreko neurriak aplikatzea.	Identifikazio-datuak, harremanetarako datuak, kontratatutako zerbitzuak, kontsumoak eta zerbitzuen erabilera, fakturazio- eta ordainketa-datuak, ordainbideak, errekarguak eta jaulkitako fakturak barne. Telekomunikazioen trafikoa, zerbitzua fakturatzeko beharrezkoak diren heinean.	Kontratu bidezko harremanak iraun bitartean. Zerbitzuaren faktura aurkaratzeko epea iraungi arte edo haren ordainketa eskatzeko epearen barruan tratatuko dira fakturatzeko beharrezkoak diren trafiko-datuak.
Telekomunikazio-zerbitzuak ematea. Helburu honen barruan sartzen dira telekomunikazio-zerbitzuak emateko beharrezkoak diren	Kontratua gauzatzea	Telekomunikazioen trafiko-datuak, kokapen-datuak, zerbitzua emateko beharrezkoak diren heinean.	Komunikazioak bidaltzeko eta beste operadore batzuekiko konexioen ordainketak kudeatzeko

jarduerak; esaterako, komunikazio elektronikoen sarearen bitartez bideratzea komunikazioa, edo deiak ezartzea eta bideratzea (beste telekomunikazio-operadore batzuekin konektatzea barne).			behar den denboran.
Operadoreen arteko zenbaki-eramangarritasunek o eskaeren kudeaketa	Legezko betebeharra: 2022ko ekainaren 28ko Telekomunikazioei buruzko 2022/11 Lege Orokorraren 33. artikulua.	Identifikazio-datuak, eraman beharreko zenbakiak, jatorriko/helburuko operadorea.	Beste konpainia batera aldatzeko: eskariaren izapideak egin bitartean. Beste konpainia batetik etortzeko: kontratu bidezko harremanak iraun bitartean.
Zenbatekoak berreskuratzea Zerbitzu-ematea dela-eta hark zor dituen zenbatekoei buruzko erreklamazioak kudeatzea.	Interes legitimoa: Bezeroek zor dituzten zenbatekoak berreskuratzeko behar diren ekintzak egiteko ahalmena dugu.	Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak, fakturazio-eta ordainketa-datuak.	Zorra ordaintzen den arte.
CNMCKo Abonatu Datuak Kudeatzeko Sistemari komunikatzea. Legez ezarritako hainbat xederekin; besteak beste, larrialdi-zerbitzuei (112) informazioa ematea.	Legezko betebeharra: CNMC 1/2013 eta 5/2014 zirkularrak Adostasuna: abonatu-gidetan eta kontsulta-sistemetan agertzeko, bai eta datu horiek publizitaterako erabiltzeko ere.	Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak, kontratatutako zerbitzuari buruzko informazioa eta, batzuetan, lokalizazioari buruzkoa.	Kontratu-harremanak irauten duen bitartean. Gidetan agertzeko, adostasuna atzera bota arte.

Datuak kontserbatzea Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen eskaerei erantzuteko.	Legezko betebeharra: 25/2007 Legea eta 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa.	Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak; trafiko-eta kokapen-datuak.	12 hilabete
--	--	--	-------------

← Itzuli



Iruzuraren prebentzioarekin erlazionatutako tratamenduak

Helburua	Legitimazio-oinarria	Datu tratatuak	Tratamenduen epea
Legez kontrako trafikoa identifikatzea. Bezeroari kalte egin dakiokela detektatuz gero, sarrerako edo irteerako deiak blokeatzeko, eta iruzurrezkoak edo komertzialak izan daitezkeen deiak identifikatzeko.	Legezko betebeharra: telekomunikazio-operadoreek identifikatzeko trafikoa irregularra identifikatzeko, 381/2015 Errege Dekretuan jasota dagoenari jarraikiz. Dei komertzialak identifikatzeko zerbitzua emateko, Interes legitimoa: Bezeroari jakinaraztea deia nondik datorren eta ea komertziala edo	Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak, telekomunikazioetako trafikodatuak, eta kontratatutako produktu eta zerbitzuak.	Hamabi hilabete, blokeoa hasten denetik. 3 hilabete deia identifikatzeko zerbitzua emateko.

	iruzurrezkoa izan daitekeen.		
Emandako datuak egiaztatzea. Kontratazioaren esparruan emandako datuen egiazkotasuna egiaztatzen da, eta iruzurrezkoak izan daitezkeen beste eskaera batzuekin alderatzen dira Taldeko beste sozietate batzuetan, Hunter sisteman, AEATn, banku-erakundeetan eta beste operadore batzuetan.	Interes legitimoa: bezeroa eta konpainia kontratazioan izan litezkeen iruzurretatik babestea. Kontratazio-eskaera aztertu ondoren, atzera bota ahal izango da; beraz, jakinarazten dizugu eskubidea duzula ukatuz gero eskuz berrikusteko eskatzeko.	Identifikazio-datuak, harremanetarako datuak, helbideak, ordaintzeko moduak, saltokiaren informazioa eta, hala badagokio: IPa, eta gailuari, trafikoari eta nabigazioari buruzko datuak. Datuak egiaztatzea, adibidez, Zerga Administrazioako Estatu Agentzian edo banketxeetan.	Kontratu-harremanak dirauen bitartean, eta iruzurragatik ukatutakoentzat, 5 urte. Hunter sistemako datuak urtebetez gordeko dira; iruzurrezko izan litezkeenak, 5 urtez.
Bezeroak edo ordezkariak identifikatzea. Datuak tratatzean, hainbat sistema erabiliko dira bezeroaren identitatea egiaztatzeko kontratuzko harremana sortzen edo aldatzen duten ekintzetan; horren haritik, baliteke nortasun-agiria eskatzea Bezeroari.	Kontratu bat edo kontratu aurreko neurriak gauzatzea. Adostasuna, analisi biometrikoko teknologiak erabiltzen baldin badira.	Identitatearen egiaztagiria; hala badagokio, informazio biometrikoa.	Kontratu bidezko harremanak iraun bitartean. Biometriari dagokionez, gehienez hilabetez gordeko da, eta, ondoren, kode alfanumeriko bat baino ez da gordeko, identifikazio-prozesua egiaztatzeko.

➔ **Gehiago jakiteko**

Euskaltelen, bezeroa eta konpainia bera iruzurretatik eta/edo nortasun-ordezpenetatik babesteko, gure produktu eta/edo zerbitzuen kontratazioan emandako datuen zehaztasuna egiaztatu ahal izango dugu. Era berean, babes-

sistema berezi bat ezarria dugu, egoera horiek automatikoki detekta ditzakeena identifikazio-datuak, kontaktu-datuak, gailu-datuak, datu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruak (ordainketa-datuak), saltokiari buruzko informazioa edo kontratazioari, trafikoari edo nabigazioari buruzkoa erabiliz. Halaber, emandako informazioa egiaztatu ahal izango dugu kontsultak eginez, hala nola Zerga Administrazioako Estatu Agentziari edo banketxei.

Iruzurra eta/edo identitate-ordezpenak detektatzeko gure sistema automatikoei kontratazioa ukatzen badute, kontratazio-prozesua pertsona batek berrikusteko eskatu ahal izango diguzu, eta prozesua ukatzeko arrazoiei buruzko informazio guztia eskuratu, helbide honetara idatzita: docu@euskaltel.com.

Iruzurraren aurkako Hunter sistema

Bezera eta konpainia kontratazioan izan litezkeen iruzurretatik babesteko, Euskaltel IRUZURRAREN AURKAKO ENPRESEN ESPAINIAKO ELKARTEARI atxikita dago. Elkarte horretako kideak Hunter sistemako datuen tratamenduaren arduradunak dira.

Kontratazio-eskaera batean emandako datuak konparatu egingo dira eskaeretan iruzurra prebenitzeko Hunter Sistemari agertzen diren telefonia-zerbitzuen eskaeren gaineko beste datu batzuekin, soilik zerbitzua onartzeko prozesuaren barruan iruzurra izan daitekeen informaziorik dagoen detektatzeko. Datu oker, irregular edo osatugabeak atzematen badira, zure eskabidea zehatzago aztertuko da; datu horiek halakotzat sartuko dira sisteman, eta lehen aipatutako helburuetarako kontsultatu ahal izango dituzte Hunter Sistemari atxikitako entitateek eta telekomunikazio-sektorekoek. Helbide honetan ikus daiteke zerrenda: <https://asociacioncontraelfraude.com>.

Zure datuetara irispidea izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, datuen tratamenduari aurka egiteko, datuen eramangarritasunerako eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabil ditzakezu Iruzurraren aurkako enpresen Espainiako Elkartearen aurrean, helbide honetara idatziz: Apartado de Correos 2054, 28002 MADRID. Eskabide bat izenpetuta bidali beharko da helbide horretara, identifikazio-agiriaren fotokopia batekin batera.

Bezeroak edo Ordezkariek identifikatzea

Zure identitatea egiaztatzeko eta zure nortasun-agiriaren benetakotasuna, indarraldia eta osotasuna berresteko tratatuko ditu emandako datu pertsonalak Euskaltelek, segurtasuna bermatzeko eta iruzurra prebenitzeko. Bi alderdiek indarrean dagoen kontratua gauzatzean dago legitimatuta tratamendua.

Era berean, datu biometrikoak tratatu behar izanez gero bezeroaren identifikazioa egiaztatzeko aurrez aurrekoak ez diren kanalen bitartez egindako kontratuetan, zure identitatea egiaztatzeko tratatuko ditu datuak Euskaltelek; horretarako, zure nortasun-agiriko argazkia eta alta-prozesuan ateratzen duzun argazkia alderatuko ditu, baldin eta zure adostasuna badu. Identitatea ordeztzeko arrisku handiagoa duten urrutiko merkataritza-ekintzetan soilik erabiltzen ditu Euskaltelek egiaztapen biometrikoko prozedurak, ekintza horietan identifikazio-neurriak sendotu behar baitira. Zure irudia eta datu biometrikoak eman nahi ez badituzu, eskatutako kontratazioak Euskaltelen denda fisikoetan amaitzeko aukera eskaintzen da.

Edonola ere, Euskaltelek diseinutik ezartzen ditu pribatutasun-kontrolak, eta ziurtatzen du zure dokumentuko informazioa bildu zenean zeuzkan helburuetarako soilik erabiliko dela, bezeroaren identifikazioa egiaztatzeko eta prozesu osoan segurtasuna, zehaztasuna eta konfidentzialtasuna bermatuko duten egiaztapenak egiteko behar den denboran.

◀ Itzuli



Ondare-kaudimena

Helburua	Legitimazio-oinarria	Datu tratatuak	Tratamenduaren epea
Zure kaudimenari buruzko profil bat sortzea Mugaeguneratuta dauden eta erreklama daitezkeen zorrak Taldeko beste sozietate batzuetan kontsultatuko dira horretarako. Kontuan hartuko dira kreditu-informazioko sistemak eta ondare-kaudimeneko fitxategiak ere.	Interes legitimoa: kontratazio berriaren bideragarritasuna ebaluatzea eta ez ordaintzeko arriskua murriztea. Analisia negatiboa bada, gerta daiteke zure kontratazio-eskaera atzera botatzea; zuk, gero, zure kasua eskuz azter dadin eskatzeko eskubidea izango duzu.	identifikazio-datuak, fakturazio-eta ordainketa-datuak, zor mugaeguneratu eta galdagarriak, Kreditu Informazioko Sistemen informazioa.	Kontratu bidezko harremanak irauten duen bitartean
Kreditu-informazioko sistemetan izena ematea ordaintzen ez bada, eta zorra egiazkoa, mugaeguneratua eta galdagarria bada, Kreditu-informazioko sistemetan inskribatuko da (Equifax Ibérica SLrekin edo Experian Bureau de Cr�dito SAUrekin ardura partekatuz, kasuaren arabera).	Interes legitimoa: jasota dago Datuak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoaren 20. artikuluan.	Identifikazio-datuak, zorraren zenbatekoa, zorra sortzen den zerbitzuen kategoria.	Zorra kitatu arte edo 6 urtez, galdagarria denetik hasita.

◀ Itzuli



Zerbitzuak aztertzea eta hobetzea

Helburua	Legitimazio-oinarria	Datu tratatuak	Tratamenduaren epea
----------	----------------------	----------------	---------------------

Zerbitzuen kalitatea hobetzea emandako zerbitzuen kalitatea hobetzea, emandako zerbitzuetan gorabehera teknikoak edo bestelakoak aurreikusi, detektatu, kudeatu eta ebazteko prozesuen bidez.	Interes legitimoa: bezeroei eta erabiltzaileei ematen zaizkien produktuak eta zerbitzuak etengabe hobetzea, haien euskarri diren sare, sistema eta prozesuen azterketa xehatuaren bidez.	Kontratazioan emandako datuak eta zerbitzuen erabilerak sortutakoak, hauek barne direla: barne-sailekiko harremanak, webgunearen eta aplikazioaren erabilera eta abar. Profilak sortzea barne. Xehetasun gehiago HEMEN	Kontratu bidezko harremanak dirauen bitartean, eta 18 hilabete arte, harremana bukatutakoan.
Ekintza komertzialak optimizatzea, eta barneko administrazio-helburuetarako beste tratamendu batzuk. Bezeroarekiko kontratua indarrean den bitartean, Bezeroaren ezinbesteko datuak partekatuko ditugu antzeko produktu eta zerbitzuak ematen dituzten Taldeko beste sozietate batzuekin, barneko administrazio-helburuetarako; adibidez, tratamendu komertzialetan ikus-entzuleak negatibizatzeke eta komunikazio errepikakorrak eta/edo gehiegizkoak bidal daitezten saihesteko.	Enpresa-talde baten parte diren enpresen interes legitimoa, barneko administrazio-helburuetarako enpresa-taldearen barruan datu pertsonalak igortzeko.	Telefono-zenbakia eta oinarritzko beste identifikazio-datu batzuk.	Kontratua indarrean den bitartean.
Datuak anonimizatzea. Beste helburu batzuetarako tratatutako datuak anonimizatu egiten dira, modu atzeraezinean. Prozesu hori amaitutakoan, ondoriozko datuek ez uztea pertsona fisikoak identifikatzen, ez zuzenean, ez zeharka.	Interes legitimoa.	Trafikoari eta nabigazioari buruzko datuak, lokalizazioari buruzko datuak, datu demografikoak, zerbitzuen erabilerari buruzko datuak.	Kontratuzko harremanak dirauen bitartean, edonola ere azken bi urteetako informazioa mugatua.

Datuak partekatzeke eremu propio batean sartzen dira anonimizatutako datuak, proiektu propioetan eta hirugarrenen proiektuetan erabiltzeko; horri esker, zerbitzu berritzaileak sortuko dira, eta erabakiak hobetuko, datu estatistikoetan oinarrituta.			
---	--	--	--

➔ Gehiago jakiteko

Euskaltelek, bere zerbitzuak hobetzeko eta bezero-zorria fidelizatzeko interes legítimoan oinarrituta, Bezeroak gurekin kontratatutako dituen zerbitzuak nola erabiltzen dituen azter dezake Kontratuaren indarraldian eta Kontratua bukatu eta 18 hilabeteko epean, **Zerbitzuen erabileraren profila osatzeko**, batik bat hiru helbururekin:

- Oro har bezeroei eskaintzen zaien zerbitzua, eskaintza eta arreta hobetzea (esate baterako, tarifa berriak garatzea, itxarote-denborak murriztea bezero-arretan, deiak eraginkortasunez bideratzea bezero-arretako zerbitzura, etab.)
- Oro har gure zerbitzuekin erlazionatutako gorabeherak, hobetzeko alderdiak eta beharrak detektatzea (esate baterako, antenakiko arazoak, estaldura- edo sare-arazoak, hornikuntza-arazoak, iruzurrezko trafikoa irregularra eta gorabeheren arreta hobetzea)
- Abandonu-joeraren ereduak eta beste eredu estatistiko batzuk lantzea.

Helburu horietarako, datu seudonimizatuak eta Bezeroak bere eskura jartzen ditugun zerbitzuez egiten duen erabilerari buruzko informazioa erabiltzen dugu; halako zerbitzutzat jotzen dira telekomunikazio-zerbitzua (barne direla kontratu-harremanaren kudeaketa egokia, fakturazioa eta ordainketak eta telekomunikazio-zerbitzuaren eta sarearen kalitatea), kontsulta-zerbitzuak (besteak beste, aplikazioa eta bezeroaren arretako zerbitzua), kalitate horien zerbitzua eta gorabeherak konpontzea. Adibidez, datu hauek erabil daitezke: egindako dei-mota eta -kopurua, roamingik baden, ordutegiak, nabigazio-bolumena, trafikoa handiagoa edo txikiagoa duten eremuan, fakturaren edo kargaren batez besteko zenbatekoak, gorabeherak, gorabehera-mota, bezero-arretako itxaronaldia, jasotako arreta-mota, gorabeherak konpontzeko denbora, dei hutseginen saiakerak, aplikazioa erabiltzen den edo ez, etab. Batzuetan, adimen artifizialeko sistemak erabiliko dira analisi horiek egiteko.

Kasu horietan, bezeroaren datuen babeserako eskubidearen inpaktua ahalik eta txikiena izateko neurri egokiak hartuko ditu Euskaltelek. Adibidez, xede hori betetzeko behar-beharrezkoak diren datuak baino ez ditu tratatuko. Bezeroak uko egin diezaioke bere datuak helburu horretarako erabiltzeari; horretarako, helbide honetara idatzi behar du: docu@euskaltel.com.

◀ Itzuli



Euskaltelen informazio komertziala

Helburua	Legitimazio-oinarria	Datu tratatuak	Tratamenduaren epea
Helburu komertzialekin segmentatzea Gure eskaintzak pertsonalizatzea eta, azken batean, Bezeroen behar eta nahiei hobeto erantzungo dieten produktu eta zerbitzuak eskaintzea.	Oinarrizko datuekin pertsonalizazioa egiteko interes legitimoa, Bezeroari dakarkion onuraren (informazio esanguratsuagoa jasotzen du) eta Euskalteli dakarkionaren (komunikazio eraginkorragoak) arteko oreka ebaluatu ondoren.	Kontratazioan emandako datuak eta zerbitzuen erabilerak sortutakoak, hauek barne direla: barne-sailekiko harremanak, webaren erabilera, aplikazioaren erabilera eta abar. Xehetasun gehiago, behean.	Kontratu bidezko harremanak iraun bitartean.
Tarifa hobeei buruzko informazioa bidaltzea Azken erabiltzaileei, ohiko komunikazio-bideen bitartez, gutxienez urtero.	Legezko betebeharra: 2022ko ekainaren 28ko Telekomunikazioei buruzko 2022/11 Lege Orokorraren 67.7. artikulua.	Identifikazio-datuak, kontratatutako zerbitzuen informazioa eta harremanetarako datuak.	Kontratu-harremanak irauten duen bitartean
Komunikazio komertzial propioak bidaltzea. Kontratatutako produktu eta/edo zerbitzuen antzekoen, albisteen, ekitaldietarako gonbiten, lehiaketetan parte hartzeko gonbiten eta Sozietatea sustatzeko beste ekintza batzuen inguruko jakinarazpenak bidaltzea, bitarteko elektronikoen edo ez-elektronikoen bidez.	Interes legitimoa: bezeroari kontratatuta dauzkan produktuen edo zerbitzuen antzekoak eskaintzea. Eta komunikazioak pertsonalizatzeko, kontratazioan, kargatzeetan eta kontsumoetan bildutako datuetatik hartzaileak segmentatuz.	Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak, kontratatutako zerbitzuak eta produktuak, helbidea. Berariazko adostasunak badaude: trafikoari eta nabigazioari buruzko datuak, lokalizazioari buruzko datuak, datu demografikoak,	Datuak tratatzeari uko egin arte, edo kontratua amaitu eta 12 hilabete igaro arte.

		zerbitzuen erabilerari buruzko datuak. Xehetasun gehiago, behean	
Profil komertzial osoa egitea. Profil komertzialak egitea, hauek erabiliz: zerbitzua ematearen ondoriozko datuak, trafiko-, nabigazio- eta kokapen-datuak, ondorioztatutako datuak, eta kanpo-iturrietatik lortutako datuak, helburu komertzialerako betiere.	Adostasuna	Trafikoari eta nabigazioari buruzko datuak, lokalizazioari buruzko datuak, datu demografikoak, zerbitzuen erabilerari buruzko datuak. Gailuak erabiltzeari buruzko datuak eta kontratatutako beste zerbitzu batzuk (telebistan ikusitako edukiak). Sareko / Sare sozialetako / Aplikazioetako interakzioak Xehetasun gehiago, behean.	Adostasuna kentzen ez den bitartean
Hirugarrenen produktu eta zerbitzuen komunikazioak bidaltzea. : Komunikazio komertzialak bidaltzea, bitarteko elektronikoen (WhatsApp barne) edo ez-elektronikoen bitartez; kontratatutakoez bestelako produktu	Adostasuna	Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak. Berariazko adostasunak badaude: trafikoari eta nabigazioari	Adostasuna kentzen ez digun bitartean, edo kontratuzko harremana amaitzen den arte.

eta/edo zerbitzuei buruzko informazioa, gure Taldeko beste enpresa batzuek edo gurekin hitzarmen komertzialak dituzten hirugarren enpresek emanak (sektore hauetakoak izango dira enpresak: telekomunikazioak, finantzak, aseguruak, teknologia, energia, ikus-entzunezkoak, segurtasuna, hezkuntza, aisia, automobilgintza, publizitatea eta kontsumo handia).		buruzko datuak, lokalizazioari buruzko datuak, datu demografikoak, zerbitzuen erabilerari buruzko datuak. Xehetasun gehiago HEMEN.	
Datuak MasOrange Taldeko enpresei jakinaraztea. Bezeroaren datuak MASORANGE Taldeko beste enpresa batzuei jakinaraztea, edozein bidetatik (WhatsApp barne) eskaintza komertzialak bidaltzeko.	Adostasuna	Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak. Profil komertzial osoa egiteko adostasuna baldin badago: trafiko-eta nabigazio-datuak, kokapen-datuak, datu demografikoak, zerbitzuak erabiltzearekin lotutako datuak.	Adostasuna kentzen ez digun bitartean, edo kontratuzko harremana amaitzen den arte.
Publizitatea Masbusiness Advertising SLk trafiko-eta nabigazio-datuak, kokapen-datuak, datu demografikoak eta zerbitzuak erabiltzeko datuak erabiltzea, askotariko bitartekoetan (esaterako, Internet edo telebista) ikusten dudan publizitatea	Adostasuna	Trafikoari eta nabigazioari buruzko datuak, lokalizazioari buruzko datuak, datu demografikoak, zerbitzuen erabilerari buruzko datuak. Gailuak erabiltzeari buruzko datuak	Adostasuna kentzen ez digun bitartean, edo kontratuzko harremana amaitzen den arte.

nire hobespenetara pertsonalizatzeko. Xehetasun gehiago, behean.		eta kontratatutako beste zerbitzu batzuk (telebistan ikusitako edukiak). Sareko / Sare sozialetako / Aplikazioetako interakzioak	
--	--	---	--

➔ Gehiago jakiteko

Euskaltelen, gure eskaintzak pertsonalizatzeko eta, azken batean, bezeroen behar eta nahiei hobeto erantzungo dieten produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko dugun interes legitimoan oinarrituta, kanpaina bakoitzaren hartzailleak segmentutan banatu ditzakegu kontratazioari, kargei eta kontsumoari buruzko datuetatik abiatuta (adibidez, eskaintza bat herri edo eremu geografiko jakin batean bizi diren bezeroei edo tarifa jakin bat kontratatatu dutenei soilik zuzentzeko).

Euskaltelen, **profilatzea** da datu pertsonalak, gure zerbitzuen erabilera-datuak, fakturazio-datuak, ordainketei buruzkoak, kargatzeei buruzkoak edo kontsumo-datuak erabiltzea zenbait alderdi aztertzeko eta aurreratzeko, hala nola lehenespen pertsonalak, interesak eta jokabideak, gure zerbitzuen kalitatearen pertzepzioa, etab.

Helburu hauetarako trata daitezkeen datuen artean, kontratazioaren, fakturazioaren eta kontsumoaren esparruan bildutako datuez gain, hauek ere badaude: bezeroak hainbat testuingurutan eman digun informazio pertsonala (adibidez, adina, helbidea edo kanpaina espezifikoaren, inkestaren eta abarren esparruan eman digun bestelako informazioa, hala nola interesak edo bere terminalari edo hobespenei buruzko informazioa); etxeko Internet finkora konektatutako gailuak, Euskaltekin kontratatuta daukazu eskaintzaren parte diren telebistako eta/edo beste gailu batzuetako ikus-entzuleak; nabigazio-datuak (egindako web-bisitei lotutako datu teknikoak, hala nola IP helbidea, konexioaren data eta ordua, DNS kontsulta, etab.); eta mugikorraren posizio geografikoarekin erlazionatutako trafikoa- eta kokapen-datuak (sustapen hori egiteko behar den heinean eta denboran).

Euskaltelen, helburu komertzialetarako erabiltzen ditugu profilak, interesdunak adostasuna eman badu, gure bezeroen portaerak hobeto ulertzeko. Helburua da xehetasun handiagoz ezagutzea zein diren gure Bezeroen interesak, emandako beste adostasun batzuen arabera Euskaltelenak, [Taldeko beste enpresaren batenak](#) edo hirugarren enpresenak izan daitezkeen produktu edo zerbitzuei buruzko informazio komertziala eskaintzeko.

Bereziki, horretarako adostasun espezifikoa ematen badiguzu, MasOrange Taldeko Masbusiness Advertising SLrekin partekatu ahal izango ditugu zure profil komertzial osoko datuak. Masbusiness Advertising SLk ematen dituen zerbitzuek publizitate-kanpaina digitalak kudeatzen laguntzen die iragarleei hainbat kanaletan; besteak beste, webguneetan, aplikazioetan, audiokoetan, telebista adimendunetan eta beste bideo-mota batzuetan. Zure profil komertzial osoko datuekin, publizitate hori askoz ere esanguratsuagoa izango da Bezeroarentzat, eta eraginkorragoa iragarleentzat. Edonola ere, Masbusiness Advertising SLrekin partekatutako da informazio hori, datuen minimizazioko eta pribatutasun lehenetsiko neurriak aplikatuta; adibidez, helburua erdiesteko beharrezkoa ez den informazioa mugatuz eta ezizena aplikatuz.

Era berean, garrantzitsua da argitzea, publizitate digitala egiteko, Masbusiness Advertising SLk banakako datu batetik sortutako ezizen-identifikatzaileak (*hash* bihurtuak) bakarrik erabiltzen dituela; hortaz, zure identifikazioko edo profileko informazioa inola ere ez da partekatuko ez publizitate digitalaren ekosisteman parte hartzen duten hirugarrenekin, ez iragarleekin. [Esteka](#) honetan lor dezakezu Masbusiness Advertising SLk egiten dituen jardueri buruzko informazio gehiago, publizitate-identifikatzaileak sortzeko modua barne.

← Itzuli

➡ Nori jakinarazten dizkiogu zure datuak?

Euskaltelek legitimazio-oinarri baliozkoa eta nahikoa duenean soilik jakinaraziko dizkie zure datu pertsonalak hirugarrenei, politika honetan azaldutako helburuetako bakoitzean esan bezala; alegia, adostasuna jasotzean, interes legitimoa izatean, edo legeria betetzeko nahitaezkoa denean. Jarraian, aurretik azaldutako tratamenduek berekin ekar ditzaketen datu-komunikazioak laburbiltzen dira:

Jasotzaileak	Datu-kategoriak	Legitimazio-oinarriak
 Beste operadore batzuk	Identifikazio-, kontaktu- eta trafiko-datuak	Kontratu bat gauzatzea (deien bideratzea, interkonexioa, STA-kudeaketa)
	Identifikazio-datuak, telefono-zenbakia	Zenbakiaren eramangarritasun-prozesurako legezko betebeharra (11/2022 Telekomunikazioen Lege Orokorraren 33. artikulua)
	Telefono-zenbakia, eramangarritasun-data.	Kontratazioan gerta daitezkeen iruzurrak atzemateko bezeroek duten interes legitimoa.
 "SEPA zuzeneko zordunketa"ren helbideratzeetarako onartu duzun bankua	Identifikazio-, fakturazio- eta kobrantza-datuak, ordaintzeko moduak.	Kontratua gauzatzea
 Ondare-kaudimenari buruzko fitxategi komunen titularrak: Equifax Ibérica SL eta	Identifikazio-datuak eta ordaindu gabeko zorra	Interes legitimoa: Datuak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoaren 20. artikulua

Experian Bureau de Crédito SAU.		
 Iruzurraren aurkako Enpresen Espainiako Elkarte	Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak, ordaintzeko bideak, kontratatutako produktu eta zerbitzuak.	Atxikitako enpresen interes legitimoa zerbitzua onesteko prozesuan egon litekeen iruzurrezko informazioa detektatzeko.
Talde ko beste enpresa batzuk	Identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak, ordaintzeko bideak, zorra, kontratatutako produktu eta zerbitzuak.	 Interes legitimoa: iruzurra prebenitzea
	Harremanetarako datuak	 Interes legitimoa: ekintza komertzialak optimizatzea, Taldearen marken arteko bikoizketak saihestuz
	Identifikazio-datuak, harremanetarako datuak, ordaintzeko moduak, fakturazioa eta kobrantza, telekomunikazioetako trafikoa.	 Interes legitimoa: Enpresa taldearen barruko helburu administratiboak
	Identifikazio-datuak, harremanetarako datuak, helburu komertzialetarako kontratatutako produktu eta zerbitzuak	 Adostasuna
Masbusiness Advertising	Profil komertzial osoa	 Adostasuna
	Larrialdi-zerbitzuak – Identifikazio-, kontaktu- eta lokalizazio-datuak	Legezko betebeharra: CNMCren 1/2013 eta 5/2014 zirkularrak

 Abonatuaren Datuak Kudeatzeko Sistema (CNMC)	Abonatu-gidak – Identifikazio- eta kontaktu-datuak	Adostasuna
	Abonatu-giden informazioa helburu komertzialetarako erabiltzea – identifikazioko eta harremanetarako datuak	Adostasuna
 Ahalmena duten eragileak (hala nola Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak) eta epaileak eta epaitegiak	Indarrean dagoen legerian aurreikusitakoak. Informazio gehiago, hemen	Legezko betebeharrak: 25/2007 Legea, Datuen Kontserbazioari buruzkoa, eta Zigor Kodea, besteak beste
 Administrazio publikoak, hala nola Zerga Agentzia, CNMC, ministerio eskuduna, kontsumoaren arloko agintariak, Datuak Babesteko Espainiako Agentzia	Kasu bakoitzean eskatzen direnak. Normalean, identifikazio-, kontaktu- eta fakturazio-datuak Trafiko irregularren kasuan: telekomunikazioen trafikoko datuak	Legezko betebeharrak

➔ Gehiago jakiteko

Ahalmena duten eragileekiko lankidetzak

Jakinarazten dizugu ezen, indarrean dagoen legeriaren arabera, zure telekomunikazio-zerbitzuari buruzko zenbait datu gordetzeko eta honako hauei jakinarazteko betebeharrak dugula: Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak, beren funtzioak bete behar dituzten epaitegi eta auzitegiak, Ministerio Fiskala eta arlo horretan eskumena duten beste agintari batzuk. Helburu horrekin tratatuko diren datu-kategoriak identifikazio-, harreman- eta trafiko-datuak izango dira, Euskaltelekin duzun kontratu-harremanaren barruan edo gure zerbitzuak ematean bildutakoak edo sortutakoak. Horrez gain, gure zerbitzuaren bidez egindako komunikazioei buruzko informazioa ere tratatuko da, hala nola egindako eta jasotako deiei buruzko informazioa, esleitutako IP helbideak, kokapen-datuak edo komunikazioak bidaltzen edo jasotzen dituzten posta elektronikoko helbideak. Tratamendu honen legitimazio-oinarria legezko betebeharrak betetzea da. Xede horrekin tratatutako datuak linea aktibo dagoen bitartean tratatuko dira, eta, ondoren, legez aurreikusitako epean. Legeria hori betetzeko xede bakarrarekin tratatutako trafiko-datuak urtebetez gordeko dira.

◀ Itzuli

➡ Euskaltelen zerbitzu-hornitzaileak

Bestalde, zerbitzuak emateko behar diren eginkizunetako batzuetan laguntzen diguten enpresa espezializatuen laguntza dugu. Enpresa horiek, beren eginkizunak betetzeko, datu pertsonalak eskuratu eta tratatu behar dituzte, tratamendu-eragile gisa. Datuak aurrez adierazitako helburuetarako erabili ahal izango dituzten konfiantzazko hornitzaile horiek sektore hauetakoak dira: Bezeroarentzako arreta, logistika, administrazio-kudeaketa, publizitatea eta komunikazioa, zerbitzu juridikoak, kobrantza-enpresak, informazio-sistemak, zibersegurtasuna, adimen artifizialean oinarritutako teknologia eta dokumentu-kudeaketa, besteak beste.

Baliteke Euskaltelen hornitzailearen batek unean-unean Europako Esparru Ekonomikotik kanpoko erabiltzaileen datuak tratatu behar izatea. Nolanahi ere, datu pertsonalen babes-maila egokia bermatzeko bermeak zehaztuko dira. Berme horiek lortzeko, Europako Batzordeak onartutako kontratu-klausulen ereduak sinatzen dira egoera horretan dauden hornitzaileekin, edo Arau Korporatibo lotesleak, kasuan kasu. Berme horien kopia bat edo haiei buruzko informazioa lortu nahi baduzu, Datuak Babesteko gure ordezkariari idatz diezaiokezu 1. atalean adierazitako helbide elektronikora.

Ondoko taulan kontsultatu daitezke Europako Esparru Ekonomikotik kanpoko herrialdeak, non sozietatearen hornitzaileek datu pertsonalak tratatu ahal izango baitituzte ondoren aipatzen diren zerbitzuak eskaintzeko:

Zerbitzua	Herrialdea
Teknikari adituen laguntza	India

← Itzuli

➡ Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak?

Euskaltelek bildu diren helbururako beharrezkoak diren bitartean soilik erabiliko ditu datuak. 2. ataleko tauletan dago epe horiei buruzko informazioa. Blokeatu egingo ditu epe horiek amaitutakoan; soilik polizia-agintarien, epaileen eta auzitegien, fiskaltzaren edo administrazio publiko eskudunen eskura izango dira, tratamenduaren ondoriozko legezko betebeharrak eta erantzukizunak preskribatu arte (Datuak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoaren 32. artikulua). Epe hori, normalean, kontratua bukatzen denetik sei urtera artekoa izaten da. Hori guztia, baldin eta erreklamazio administratiborik edo judizialik ez badago; kasu horretan, prozedura bukatu eta emaitza irmo bihurtu arte mantenduko dira datuak.

Hala ere, datuen kategoria eta helburu batzuetarako, datuak gordetzeko beste epe batzuk aplikatzen dira; 2. atalean kontsultatu ditzakezu.

← Itzuli

➡ 14 urtetik beherako datuen tratamendua

Espanian bizi diren 18 urtetik gorako pertsonak soilik kontrata ditzakete Euskaltelen zerbitzuak. Produktu edo zerbitzu batek berariaz adingabeak barnean hartzen

dituenean izan ezik, Bezero batek baimena ematen badu 14 urtetik beherakoek zerbitzuak erabiltzea, Bezeroak, adingabearen arduraduna den heinean guraso-ahal osoa duelako, aurretik eta berariaz baimendu beharko du adingabearen datuak tratatzea, politika honetan ezarritako baldintzetan. Euskaltelek detektatzen badu adingabe baten datuak tratatzen direla, segurtasun- eta pribatutasun-neurri egokiak hartuko ditu datuak tratatu bitartean arriskuak saihesteko.

← Itzuli

➡ Adimen artifizialeko sistemak erabiltzea

Euskaltelen, adimen artifizialeko (AA) teknologiak erabiltzen ditugu gure prozesuetako batzuetan, gure Bezeroei eskaintzen dizkiegun zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko. AAKo sistema horiek aukera ematen dute zenbait zeregin egiteko; besteak beste, analisi prediktiboak egiteko (telekomunikazio-sarean hutsegiteak detektatzeko), Bezeroarentzako arreta hobetzeko (txatboten eta laguntzaile birtualen bitartez) eta zerbitzuen eskaintza optimizatzeko (bezeroaren beharren arabera). AA darabilten prozesu guztiak gure erabiltzaileen datu pertsonalen pribatutasuna eta segurtasuna errespetatuz ezartzen direla ziurtatzen dugu.

Adimen artifizialarekin loturik indarrean den araudia betetzen dugu, AARI buruzko Europar Batasunaren Erregelamendua barne. Horrek esan nahi du AAKo gure sistemak modu etikoan lan egiteko diseinatuta daudela, eta diskriminaziorik eza, gardentasuna eta erabiltzaileen oinarritzko eskubideen errespetua bermatzen dutela. Halaber, beharrezkoak diren neurriak hartzen ditugu sistema horiek prozesatzen dituzten datuen konfidentzialtasuna eta osotasuna babesteko, eta ziurtatzen dugu datuak babesteko printzipioei eta lege-estandar aplikagarriei jarraikiz erabiltzen direla.

← Itzuli

➡ Beharrezko informazio eguneratua

Emandako informazioa beti eguneratuta egon dadin eta akatsik izan ez dezan, bezeroak edo ordezkariak ahalik eta lasterren jakinarazi behar dute zer aldaketa izan diren datu pertsonaletan, Arduradunaren webgunean argitaratutako harremanetarako bideak erabiliz. Era berean, Bezeroaren eremu pribatuaren bidez ere eguneratu ahal izango dituzu datu horiek.

Bestalde, badira zenbait datu nahitaez bete beharrekoak; halakoren bat ez betetzeak kontratatutako zerbitzua ezin eman izana ekar dezake.

← Itzuli

➡ Zer eskubide dituzu?

Jakinarazten dizugu ezen, datuak babesteko legedian aurreikusitakoarekin bat, eskubide hauek dituzula:

- Datuetara irispidea izateko eskubidea: zer-nolako datuak tratatzen ditugun eta egiten ari garen datu-tratamenduak zer ezaugarri dituen jakiteko eskubidea.

- Datuak zuzentzeko eskubidea: zure datuak aldatzeko eska dezakezu, okerrak izateagatik edo egiazkoak ez izateagatik.
- Eramangarritasun-eskubidea: tratatzen ari garen datuen kopia bat eskuratu dezakezu, formatu interoperagarri batean.
- Legean jasotako kasuetan, tratamendua mugatzeko eskubidea.
- Datuak ezerezteko eskubidea: Zure datuak ezerezteko eska dezakezu tratamendua dagoeneko beharrezkoa ez denean.
- Aurka egiteko eskubidea: norberaren datuak erabiltzeari uzteko eskatzea, 2. ataleko taulan adierazitako legeko oinarria interes legitimoa denean (merkataritzako jakinarazpenak bidaltzeko bezala).
- Emandako adostasuna errebokatze eskubidea: hori edozein unetan egin dezakezu, bezeroarentzako arretara deituz edo eremu pribatuaren bidez.

Eskubide bakoitzari buruzko informazio zehatza [gure webgunean](#) duzu, baita eskubide horiek baliatzeko laguntza ere. Eskubide horiek postaz gauzatu ditzakezu, Parque Tecnológico Edificio 809 48160 Derio (Bizkaia) helbidera edo docu@euskaltel.com helbidera idatzita; zer eskubide baliatu nahi duzun adierazi beharko duzu, eta beharrezko dokumentazioa erantsi. Halaber, jakinarazten dizugu Datuak Babesteko Espainiako Agentziari erreklamazio bat ere jar diezaiokezula, hemen: www.aepd.es.

Zure datuen tratamenduari buruz zalantzarik izanez gero, datuak babesteko gure ordezkariekin jar zaitezke harremanetan, helbide honetara idatziz: dpd@euskaltel.com.

◀ Itzuli

➡ Jokabide-kodeak

Euskaltel onlineko bitartekotza-sistemako kide da, bi jokabide-koderen bitartez, datuak babestearen arloan erabiltzaileek ezar ditzaketen erreklamazioak tratatzeko. Horretarako, interesdunak Autokontrolarekin jar daitezke harremanetan, helbide elektroniko honen bitartez: mediación@autocontrol.es.

Ikusi [hemen](#) jokabide-kode horiei buruzko informazio guztia.

Euskaltelek eskubidea du termino hauek aldatzeko gure bezeroen edo haien ordezkarien datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, lege- edo jurisprudentzia-berrikuntzetara edo negozio-prozesuen aldaketetara egokitzeko. Halakoetan, aldaketa horien berri behar bezala emango zaie bezeroei edo haien ordezkariei, aldaketa horiek abian jarri baino lehentxeago.

Oraingo bertsioaren indarraldiaren hasiera-eguna: 2025/07/01

◀ Itzuli